ORDUTEGIA ____ 9:30-13:30

# UDALEKUAK 2018
# HH 3

HH telefonoa (Garazi) 659 177 469 (9.00-14:00)
udalekuak.oiartzun@gmail.com
www.gazteoiartzun.net / www.oiartzuarrak.org

| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
|---|---|---|---|---|
| **ONGI ETORRIA** | **ZIRKOA DATOR** | **IGERILEKUA** | **PIRATEN ABORDAIA *** | **UR JOLASAK **** |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 (1.hamabostaldia bukatu) |
| **ERREKA ***** | **BASERRIA EZAGUTZEN** | **IGERILEKUA** | **NATURAZ GOZATZEN** | **FLASHMOB GRABAKETA / AGURRA** |
| 16 (2. hamabostaldia hasi) | 17 | 18 | 19 | 20 |
| **BERRIEI ONGI ETORRIA / MUNDUKO JOLASAK** | **KIROLARIAK GARA** | **IGERILEKUA** | **MUSIKAZ BLAI** | **IGERILEKUA** |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| **SAHARA EGUNA** | **ZENTZUMEN EGUNA / HERRIKO TRIKITILARI GAZTEAK** | **IGERILEKUA** | **ERREKA ***** | **TXANTXA EGUNA** |
| **30** | | | | |
| **ERALDATUZ AGURTU** (transformer) | | | | |

**OHARRAK:**
Komenigarria da haurrak **mantala** ekartzea. Lehen egunean eraman eta udalekuetan uzteko aukera dute hauek bukatu arte
* Buruko zapia ekarri
** Bainu jantzia eta aldatzeko arropa ekarri behar da
*** Errekan ibiltzeko oinetako egokiak ekartzea komeni da

# ARAUTEGIA

- Ordutegia (9:30-13:30) errespetatzea eskatzen da.
- Udalekuetan zehar ahalik eta ohar gutxien banatuko ditugu. Beraz, plangintzatutako ekintzen gogorarazpenik ez dugu bidaliko. Horregatik, kontuan hartu igerilekua eta erreka jartzen duenetan beharrezko gauzak ekartzea eta kamisetak sortzen jartzen duen egunerako kamiseta bat ekartzea. Plangintzan aldaketak ematen direnetan soilik bidaliko dugu oharra HHn eta LH1en. LH2tik aurrerako aldaketak haurrei ahoz jakinaraziko dizkiegu. Bestalde, egunero www.gazteoiartzun.net eta www.oiartzuarrak.org blogetan hurrengo eguneko mailaz mailako planaren berri emango dugu.
- Urtebetetzeak janaririk gabe ospatuko ditugu. Beraz, ez ezer ekartzea eskertuko genizueke.
- Udalekuetara gurpil gainean (bizikleta, patinetea,…) etortzeko aukera izango da. Eskura izango dugu bizikleten aparkalekua.
- Haur bakoitzak bere irudia babesteko eskubidea du, beraz, denon ardura da argazki eta grabaziorik ez egitea
- Haurrak jostailurik, dirurik, mugikorrik, kamerarik ez ekartzea eskatzen da.
- Haurrak udalekuetako ordutegian atera beharko balu orri bat betetzea eta sinatzea eskatuko da.
- Ez dugu botikarik emango.
- Autobus geltoki bakoitzeko ordutegia errespetatzea eskatzen da, bai goizean autobusean uzteko orduan baita eguerdian jasotzekoan ere. Ordutegi zehatza guraso bileran zabalduko dugu. Baita aurretik aipatutako blogetan ere.
- Hamaiketarako denbora tarte bat utziko dugu egunero. Familiaren esku janaria ekarri edo ez.